

Errekak eta urbideak

Oro har, ibaien ibilguetatik hurbil dauden lurretan izandako erabilerak ez dira beti errespetuzkoak izan ekologiaren ikuspegitik, eta, horrenbestez, **ibaiek eta errekek** hainbat **ingurumen inpaktu** jasan dituzte, hala nola isurketak, ibilbidea aldatzea, jatorrizko landaredia desagertzea eta abar.

Horregatik **Udaleko Ingurumen Sailaren helburuetako** bat da hiriaren garapenak, batez ere landa guneetan, ahalik eta eragin kaltegarri txikiena izatea udalerriko ibai sare txikiaren osotasunean, eta ibilguen morfologia zein haiei lotutako ekosistemak errespetatzea.

Hori guztia bat etorrita tokiko **Agenda 21**ean, **Hiria Antolatzeko Plan Orokorrean**, **Uraren Esparru Zuzentzerian** eta beste zenbait arautegitan onartutako ideiekin, bai eta erreken goialdea eta aldameneko lurrak ondo kudeatzeak, leku horietan ez ezik, ibaiak behealdean ere izan ditzakeen arazoetan eragin onuragarri handia izan dezakeelako printzipioa errespetatuta ere.

Normalean, ez da arreta handirik jarri auzoetan udalerria zeharkatzen duten erreketan, erreka-eremuetan eta ibilgu txikietan. Gehiago urbanizatuta dauden inguruak zeharkatzen dituztenetan, ur bide horietako gehienak lurpean daude, kanal moduan egiten dute bidea gure kaleen azpitik, eta ibaien edo erreken ia ezaugarri guztiak galdu dituzte. Askotan, zoritxarrez, berandu izan daiteke elementu natural hori leheneratzeko.

Baina inguru landatarrean, oraindik erreka sare zabala dugu, eta batzuetan erriberako landaredi interesgarria dago, ibaiertzeko baso txikiak osatuta. Inguru horietan, erreka-eremuen morfologia askotan aldatu da, eta aldatzen jarraitzen da, eragin txikiagoko beste neurri batzuekin bete daitezkeen premia txikiak betetzeko. Besteak beste, hauek egin dira: kanalizazioak, ibilguak hormigoiztatzea, erriberako landaredi tipikoa kentzea, presa txikiak....

Egungo elementuak zaharberitzea

Departamentu hau, Uraren Euskal Agentziarekin (URA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, egungo elementu artifizialak zaharberitzeko eta egoera onean dauden ur ibilguak babesteko lan egiten ari da, indarreko legedia kontuan hartuta.

Lehendabizi, erreka horien **kartografia** egin da, eta zer egoeratan dauden ebaluatu, **ingurumen irizpideak** erabiliz (uraren kalitatea, hondoaren eta ertzen naturaltasuna, bazterretako landaredia, erriberako jarduerak, hondakinak...). Geroago, aurkitutako artifizialtzeetako batzuk aztertu dira, eta erregistratu (kokapena, neurriak, ezaugarriak...), eta barrerak kentzeko lanak hasi dira; lehendabizikoak URA agentziak kendu ditu gure laguntzarekin.

Egun, batera lan egiten ari da erreka bat naturalizatzeko (erriberako landaredia bultzatuz beste landare espezie batzuen aldean, arroak jarriz hormigoi jauzi txiki bat konpontzeko...).

Hurrengo urteetan, lan ildo berarekin jarraituko dugu, goialdeko ur ibilguak, oso emari txikia izan arren, ingurumen garrantzi handia dutelako; izan ere, elkarrengana dute lurraldearen zati handi batekin, oso sakabanatuta daudelako, eta, gainera, kasu honetan, Urumea ibaiaren sare hidrologikoaren oinarria dira.

Azkenik, gogorazi behar da ur ibilgu txiki horiek, ziklo hidraulikoan izan dezaketen eraginaz gain, fauna eta flora espezie askorentzat beharrezko habitatak direla berez, bai eta korridore ekologiko bikainak ere. Era berean, nabarmendu behar da erreka politiek herritarrengan oro har paisaia eta zentzumen eragina izaten dutela.

Arroyos y regatas

En general, los usos que se han producido en los terrenos cercanos a los cauces fluviales no siempre han sido respetuosos desde un punto de vista ecológico, de forma que los **ríos y arroyos** han sufrido distintos **impactos ambientales** como vertidos, alteraciones del trazado, eliminación de la vegetación original, etc.

Por ello, el **departamento de Medio Ambiente municipal** tiene como uno de sus **objetivos** que el desarrollo urbano, especialmente en las zonas rurales, colisione en la menor medida posible con la integridad de la red fluvial menor del municipio, respetando la morfología de los cauces y sus ecosistemas asociados. Todo ello en coherencia con las ideas aprobadas en distintas normativas como **la Agenda 21 local**, el **Plan General de Ordenación Urbana** o la **Directiva Marco del Agua** y respetando el principio de que la buena gestión de los arroyos aguas arriba y sus territorios anexos tiene un importante efecto beneficioso no sólo en esos emplazamientos, sino en los problemas que el río puede tener aguas abajo.

En general no se ha prestado mucha atención a los cauces menores, los arroyos y regatas que surcan el término municipal por los distintos barrios. Cuando transcurren por zonas muy urbanizadas, estos cursos de agua están en su mayoría soterrados, y circulan a modo de canales bajo nuestras calles, habiendo perdido casi todas las características de un río o arroyo. En muchos de estos casos, lamentablemente puede ser tarde para recuperar este elemento natural.

Pero en las zonas más rurales tenemos todavía una amplia red de arroyos, a veces con interesante vegetación de ribera formando pequeños bosques de galería en sus márgenes. En estas zonas, a menudo se ha alterado, y se sigue alterando, la morfología de la regata para cubrir pequeñas necesidades que podrían ser atendidas con medidas menos impactantes. Se trata de canalizaciones, hormigonado de cauces, supresión de la vegetación típica de ribera, pequeñas presas...

Restauración de los elementos artificiales existentes

Desde este departamento, en colaboración con la Agencia Vasca del Agua, URA, y la Diputación Foral de Gipuzkoa, se está trabajando para lograr la restauración de los elementos artificiales existentes y la protección de los cursos de agua que se encuentran en buen estado, atendiendo a la legislación vigente.

La primera actuación ha consistido en realizar una **cartografía** de estos arroyos y una evaluación del estado de los mismos, según **criterios ambientales** (calidad del agua, naturalidad del fondo y bordes, vegetación en márgenes, actividades en la ribera, presencia de residuos...).

Posteriormente se han estudiado varias de las artificializaciones encontradas, registrándolas (ubicación, dimensiones, características...) e iniciado actuaciones de supresión de barreras, las primeras de las cuales han sido eliminadas por URA agentzia, con nuestra colaboración.

Actualmente se está trabajando también conjuntamente en la naturalización de un arroyo (favoreciendo la vegetación de ribera frente a otras especies vegetales, introducción de rocas para solucionar un pequeño salto de hormigón...) En los próximos años seguiremos trabajando en esta línea, ya que los cursos altos de agua, a pesar de ser de muy pequeño caudal, tienen una gran importancia ambiental, porque interactúan con una gran superficie del territorio por estar muy diseminadas, y suponen además, la base de la red hidrológica del río Urumea, en este caso.

Por último, cabe recordar que además del impacto que estos cursos de agua menores pueden tener en el ciclo hídrico, constituyen en sí mismo hábitats necesarios para muchas especies de fauna y flora, y son excelentes corredores ecológicos para ellos. Asimismo, hay que destacar el impacto paisajístico y sensitivo que un bonito arroyo tiene para la ciudadanía en general.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

▶ Parke eta Lorategiak
Parques y Jardines

Urdaneta, 13 | Tel. 943481060 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián